



**ARREGI, Ignazio**  
**Eta orain, zer? Gure urte haiek**  
**(1931-2009)**

Irun: Alberdania, 2010.  
 227 or. : ir.; 21 cm.  
 ISBN: 978-84-9868-206-9.

Esanguratsua da, zalantzarik gabe, *Eta orain, zer?* galderar:ekin hastea memoria-liburu bat. Esanguratsuagoa, gainera, galdera hori –lehen irakurketan pentsa daitekeenaren kontra– arlo pertsonalari ez dagokiolako (alegia: “Eta orain zer egingo dut, egindakoak egin eta gero, bizi izandakoak bizi izan eta gero?”). Egilea ez da bere buruaz ari. Liburuaren izenburuko galdera formulatzean, Ignazio Arregi munduaren etorkizun hurbilaz ari da oro har, eta, horren barrenean, erlijio katolikoaren bilakaerak sortzen dion jakin-minaz. Galdera ikurretik zintzilik bizi den pertsona dela adierazten du, beraz, liburuaren izenburuko lehen zatiak, eta hola egiten du, ezer baino lehen, oinarritzko aitortpena: «Edozein kazetari jakin-min handiko pertsona da beti».

Ignazio Arregi (Oñati, 1931) kazetaria da burutik oinetara, eta jesuita. Hain zuzen ere, Jesusen Lagundiak eraman zuen kazetaritzara, jesuita ikasketak bukatu orduko:

Honenbestez, jesuiten hezkuntzako hamabost urte luzeak beteta zeuden. Baina, orduan, proposamen berezi bat egin zidaten nire nagusiek: gizarte-komunikazio ikasketak egitea, jesuitok mundu horretan sartu beharra geneukan-eta.

Kazetari gisa, Loiola Irratian (1965-1982), sortu berri zen Eusko Irratian (1982-1986) eta Vatikanoko Irratian (1986-2006) garatu du karrera.

Liburuaren sarreran, aitortzen du memoria hauek idazteko erabakia hartzea ez zela erraza izan. Baina Euskal Herriaren historiako «garai interesgarri batean bizitzea tokatu» zaiola, kazetari gisa «era askotako gertaeretan murgildu» dela, eta azkenean, bere esperientzia «zenbaitentzat interesgarria izan daitekeela» irudituta ekin omen zion idazketari. Hurrengo zalantza: zein hizkuntzatan idatzi, gaztelaniaz ala euskaraz. Gaztelaniaz errazago arituko zen, baina, zorionez, euskaraz idaztea erabaki zuen; eta horrekin, aberastu egin du euskal letretan gutxitan landu izan den autobiografia eta memoriaren generoa.

«Hemen sartu ditudanak, nik neronek ikusi, ukitu edo egindakoak dira», dio. Baina Arregi ez da mugatu bizipen pertsonaletara: testuinguru marrazten saiatzen daaldi eta toki bakoitzari buruz ari denean; hala erakusten du, esaterako, liburuaren amaieran eranskin gisa sartu dituen fitxetan –*Jesuitak Euskal Herrian, Loiola Irratia...*– eta kronologietan –*Eliza eta Euskadi, Euskadi-Espainia...*–. Horretaz gain, kontaera guztian zehar uzten du agerian zer irizti duen gai eta gertakari bakoitzari buruz.

Hogei kapitulutun banatu du liburua Arregik, bizitzako ibilbidea kronologikoki antolatuta. Lehenengoan –‘Nork bere jaioterra maite’–, bere oñatiartasuna aldarrikatzen du idazleak, herrizaleatasuna ageri-agerian uzten digula. Errepublikaren sorrera urtean jaiotako *txantxikuak* gerraondoko gizarte hura deskribatzen du zuri-beltzezko pintzeladetan. «Beldurra zen nagusi herri giroan, bereziki politikan eta erlijioan»; agintari, maisu, apaiz eta gurasoei aparteko begirunea zitzaien. Bizibideari dagokionez, gosetea eta eskasia ziren nagusi; Arregitarrek, ordea, txokolate-fabrika, denda eta garajea zituzten, eta, gainera, arrebak lantegi handi bateko bulegoan hasi ziren lanean. Testuinguru hartan, lanaren balioa zainetan xertatzen zen, eta hori aldarrikatzen du Ignazio Arregik ondare preziatuenaren moduan, aurrekoekiko esker onez: «...basoko haritzaren antzeko sendotasunez hazi eta hezi ondoren, bizitzako ekaitz gogorrenei ere nola aurpegi eman erakutsi ziguten».

Garai hartako mutikoa abesbatzako tiple zen, eta elizazalea: hamar urte besterik ez zuela piztu zitzaion jesuita egiteko nahia, gogo-jardunak ematera etorri ziren bi jesuitari entzuen ondoren. Bokazio goiztiar hari baldintza bat jarri zion aitak: batxilerra ikastea. Eta, hala, jesuiten Durangoko ikastetxera sartu zen Ignazio Arregi, 1942an; bi urte geroago, Xabierko ikastetxera aldatu zen.

Etetik zekarren heziketari jesuiten eragina gehitu zitzaion:

(...) ongi sartu ziguten gure buru-bihotzetan, asmorik, edo jomugarik edo ametsik handienak izan behar genituela gure bizitzan zehar.

Loiolako Ignazio eta Xabierko Frantziskoren bidetik zizelkatzen zituzten ikasle gazteak.

Heziketa hark bazituen, ordea, pitzadurak: 'Orduko bekatu handiak' dio Arregik. Hor kontatzen duen pasarteetan, minduta ageri da idazlea. Hamalau urte, sexuaren deskubrimendua...: «Orduko hizkeran esatekotan, guk, beharbada, *ukimen* bekatua egin genuen». Eta horregatik, lagun bat ikastetxetik kanporatu egin zuten. Arregi biluztu egiten da nerabezaroko gertaera hura kontatu eta juzgatzean, tabutik ihesi, zintzotasun osoz: «Gaur ere (...) ezin dut onartu nire nagusien burugabekeria eta gogorkeria hura».

Ataka hartatik irten, eta, batxilerra amaituta, jesuita izan ala ez aukeratzeko garaia iritsi zitzaion 16-17 urterekin: «... erabaki zaila izan zen niretzat. Gogorra zen dena betiko uztea, herria, sendia, lagunak, askatasuna... eta komentu batean sartzea». Misiolari ere izan nahi zuen gazteak baiezkoa eman zuen, eta Loiolako nobiziatuan sartu, 1948an; han hasi zen zazpi urteko ikastaldi luzea, Burgosko Oñara ere eramango zuena.

Zuri-beltzez marraztua dator aldi haren hasiera ere: heziketa gogor hura (zilizioa erabili beharra, zigor psikologikoa jasatea...). Geroago, ordea, irekiera zantzuak: euskara lan-tzen hasi ahal izan ziren ikasle gazteak, Plazido Mujika eta Patxi Altuna tarteko; eta Orixeren, Mitxelenaren eta Txillardegiren hitzaldiak ere giltzarriak izan ziren; gainera, politika eta gizarte arazoetan sartzen hasi ziren, Jacques Maritain erreferentzia zutela. Jesuita ikasle gazteen giroa garai berrietara egokitzen zihoan, eta irekiera hark sekulako bultzada izango zuen handik gutxira, 1962an, Joan XXIII.ak Vatikanoko Bigarren Kontzilioa konbokatuta zutenean.

Apaiztuta, meza berria emanda eta ikasketak erabat bukatuta zegoen, orduko, jesuita gaztea. Eta hartan zabaldu zitzaion, Loiolako probintziako nagusien eskutik, bizitzan erabakigarria izango zen bidea: kazetaritzako ikasketak egitea. Horretarako, Milango Unibertsitate katolikoak Bergamon zeukan zentroan bilatu zuten tokia.

Horra hor, 1963ko Bergamo hartan, beste mundu batera irekitzeko aukera. Irakasleen artean izan zuen Nazareno Taddei jesuita, Felliniren *La dolce vita* filmari buruz egindako kritikarengatik Elizako agintarietako zigortua –alde onak ere nabarmentzen baitzituen kritikak–. Neorealismoa Italian, *Nouvelle Vague* Frantzian...: zinema *Zazpigarren Artea* zen, benetan, urte haietan. Testuinguru hartan, erabateko zentzua hartzen du Arregik Komunikazioko ikasketak gainditzeko aukeratu zuen tesiaren gaiak: Zinema-teoria kontuan harturik, telebistaren nortasunaren eta berezitasunaren aldeko teoria asmatzea.

Loiolara itzulita, 1965ean, irratia heldu behar izan zion Arregik –orduan, hemen, urrutiko kontua zen telebista–. Loiola Irratia mutu zegoen, uhin ertaineko baimenik gabe; hortaz, irratia berriro irekitzea izan zen Arregiren zeregina, artean berria eta ezezaguna zen frekuentzia modulatu. 1966ko San Ignazio egunean inauguratu zuten FMko transmisorea, «entzuleak izango genituen itxaropenez». Lehengo irratigailuekin ezin zen entzuen, ordea, FMA. Orduan, proposamen bikoitz eta ausarta jo zien Loiola Irratiak entzule izan nahi zutenei; bate-tik, FMA entzuteko moduko irratigailuak erostea, eta, gainera, Irratiaren harpidedun egitea hilean bost duro ordainduz: bost mila harpidedun lortu zituzten.

Handik aurrera, bere urterik emankorrenak bizi izan zituen Loiola Irratiak, oztopo eta zailtasun guztien gainetik; horren ordaina, 1977an Itsumendiko antena suntsitu zuen eraso, garaiko bi taldek –Guerrilleros de Cristo Rey eta Batallón Vasco-Español– beren gain hartu zutena. Ignazio Arregik gorabehera haien guztien lekukotasuna dakar, hamar orrialde-tan, oraindik idatzi gabe dagoen Loiola eta Donostiako Herri Irratien historiako oinarria.

Dena dela, kudeatzaile izateaz gain, kazetari ere bazen Arregi Loiola Irratian, eta gisa horretara bizi izandako pasadizoen berri ematen du, bai eta zenbait harremani buruzkoa ere: Oteiza, Chillida, Nicanor Zabaleta, Odon Alonso... Eta Joan Paulo II.ak 1982an Loiolara egin zuen bisita –ez zalapartarik gabea– ere jasotzen du.

Loiola Irratian egindako lan hark beste bide bat ireki zion Arregiri: Eusko Irratia. Han jardun zuen hurrengo lau urteetan (1982-86), Euskadiko Autonomia Erkidegoko irrati publikoa martxan jartzen, Eusko Irrati-Radiodifusión Vasca elkarte publikoko zuzendari gisa. Gerra osteko lehen Jaurilaritza zegoen agintean, Karlos Garaikoetxea lehendakari zuela. Ramon Labaien Kulturako Sailburuaren deia jaso zuen Arregik 1982ko irailean, esateko irrati publikorako zuzendari bat behar zutela eta bera egokia izan zitekeela.

Jesuita bat, Irrati publikoan zuzendari postuan aurkitzea ez zen ohiko gauza. Bestalde, geure Irratiak ere beharrean zeuden. Baina kontuan harturik, Euskadirako ezinbestekoa zela lehenbailehen behar zen moduko Irrati Publikoa martxan jartzea, laguntzea pentsatu zuten gure nagusiek, Euskadi osoarentzat zerbitzu on bat izan zitekeelako.

1982ko udazkenean hasi zen Euskadi Irratia emititzen, Donostian; hurrengo udaberrian estreinatu zen Radio Euskadi Bilbon, eta Gasteizen berriz, Radio Vitoria beteranoa erosi, eta horrela osatu zen Euskadiko irrati publikoaren oinarria. Aldi berean, Euskal Telebista sortu zen, eta 1982ko abenduaren 31n lehen aldiz aieratu.

Bagenuen konplexu pixka bat, politikariek irratia baino telebista gehiago maite zutela konturatu ginelako. Penagarria zen ikustea nolako garrantzia ematen zioten informatiboetako minutu bakoitzari. Baina hori, nonbait, betiko leloa da telebista guztietan.

Bete-beteen asmatzen du Arregik anekdota hutsa dirudien horretan, “betiko lelo” uni-bertsala izan baita hori hurrengo urteetan ere.

Irratiaren lehen urte haiei dagokienez, ‘Bidean zehar oztopoak’ ataleko kontakizunak gertatzen dira interesgarrienak. Hasteko, GALEk Santi Brouard hil eta gero, haren gorpua Bilbotik Lekeitoria manifestazioan zeramatela,

Informatiboetako gure langileek behar zen baino kasu gehiago egin zieten beren sentimenduei, eta haserrealdiren bat izan genuen arduradunok langileekin.

Hurrena, oztopoen zerrendan, erlijio aniztasunari buruzko eztabaida dator eta, azkenik, Radio Vitorian bi aldiz izandako okupazioak. Aldi hartako gertakizunen artean, Arregik 1983ko uholdeak aipatzen ditu, ekonomiaren egoera larria eta langabezia, ETaren erasoak eta EAJ-EA eszisia. Nolanahi ere, ikusten da Eusko Irratiko aro hura kazetaritza aktiboan baino gehiago eman zuela kudeaketan. 1985eko urtea bukatzearekin batera, utzi egin zuen Eusko Irratia.

Arregiri, ordea, ez zitzaion hor amaitu komunikabideetan egindako karrera. Hurrengo jautzia, Vatikanoko Irratira egin zuen, eta han garatu zuen bere hogeitau urtean (1986-2006). Erromatik jaso zuen eskaintza ez zen nolana hikoia izan: nazioarteko informatiboetako (Servizi informativi centrali) buru izatea. Hortik ateratzen dira Vatikanokoak mundura zabaltzen dituen albisterik gehienak.

Munduko irratarik handienetakoa da Vatikanokoa: mila irratik jaso eta emititzen dituzte haren saioak, berrogei hizkuntza erabiltzen dira eta lauhun langile ditu. 1931n sortu zenetik, jesuitak izan dira beti zuzendari eta arduradun nagusiak. “Zentsura handia al dago Vatikanoko Irratian?” galdetu omen diote askotan Arregiri; lehen erantzuna, diplomatikoa:

Vatikanoko Irratiak ere bere araudia, helburuak eta jokabidea dauzka. Kazetariak, beste edozein komunikabidetan bezala, erabaki behar du horiek onartu ala ez.

Segidan, ‘Kontu handiko gaiak’ aipatzen ditu; batzuek diplomaziarekin dute zerikusia: Txinako katolikoaren egoera, Israelgo gobernuarekiko harremanak...; beste batzuk Eliza barrukoak dira: teologo aurreratuenen dotrinak eta Askapenaren Teologiaren mugimendua; horie-

zaz gain, «moral alorreko hainbat arazo, bioetikarekin zerikusia daukatenak bereziki». Gai labainkor horien aurrean, kazetarien «autokontrola» aitorzten du Arregik. Hala ere, ez du atal hau bukatuko nolabaiteko biktimismoa azaldu gabe, alegia, Elizak jasotzen omen dituen era-soak, bere esanetan:

(...) oso erraza baita izan ere, Elizari edozein kritika edo iseka botatzea, edo kalte egitea, jakinaren gainean daudelako Elizak inori ez diola kalterik egiten.

Idea hori bera errepikatzen du Arregik liburuko hamabigarren atalean, 'Vatikanoko albisteak eta zurrumurruak' izenekoan. Gero, azken hamarkadetan Vatikanonaren inguruan izan diren gertakari arantzatsuei ekiten die: Ambrosiano bankua eta Marcinkus apaiza, Joan Paulo I.aren heriotza susmopekoa, Joan Paulo II.aren kontrako atentatua, Lefebvre gotzain eskuindarrak lideratutako mugimendua, Ipar Amerikako apaiz pedofiloen eskandalua...

Bitxia da nola horien jarraian heltzen dien Arregik beste hiru gai hauei: Pedro Arrupe, Askapenaren Teologia eta Joan Paulo II.aren zahartzaro luzea. Arrupe «nik ezagutu dudan gizon handiena», jesuiten jenerala izan zenari buruz, aitorzten du Erroman oraindik ez dago-ela hura aldareetara eramateko girorik, eta *misterioari* egozten dio hori.

Liburuko hamahirugarren eta hamalauugarren ataletan –'Vatikanoa eta Eliza gaur' eta 'Eliza eta Mundua Vatikanon Irratian' izenekoetan–, azaltzen ditu egileak argien bere iritziak. Bereziki, Vatikanon bertan bizitzea suertatu zitzaion Joan Paulo II.aren agintaldia (1978-2005) jartzen du fokuan: Aita Santuak landu zituen harreman diplomatikoak, munduan zehar egindako bidaiak (104, agintaldi osoan), hark sortutako Gazte Topaketak... Jasotako kritikei ere egiten die aipamena, baina, azken batean, Aita Santu haren defentsa egiten du jesuitak.

Komunismoaren gainbehera eta Berlingo Harresia suntsitzea testuingurutat hartuta, Joan Paulo II.ak zer paper jokatu zuen aztertzen du Arregik: «Ez dago dudarik, Karol Wojtyla poloniarra Aita Santu aukeratu izana lurrikara handia izan zela Sobiet Batasunean eta bere inguruko nazio komunista guztietan». Hortik aurrera aipatzen ditu, besteak beste, Solidarnosk sindikatuari emandako laguntza («...ez hitzez bakarrik, baita diruz ere» eta 1989tik aurrera komunista izandako herrialdeetara egin zituen bidaiak. Bidaia horietako hirutara joan zen Arregi, kazetari gisa: Armeniara, Bulgariara eta Errumaniara. Joan Paulo II.aren miresmena bukaerarainokoa izan zen: «Kazetari bezala nik izan dudana esperientziarik handiena, hunkigarriena, Joan Paulo II.aren heriotza eta hileta izan zen».

Komunikazioari lotutako lana ez zen Erromako Vatikanon Irratira mugatu: TVErako hainbat kronika egin zituen 1993. eta 2005. urteen artean, eta EITBrekin ere kolaboratu zuen, irratian nahiz telebistan. Gainera, irratigintzako irakasle izan zen Erromako Unibertsitate Gregorianoan.

Estropezuak ere izan zituen Vatikanon Irratiko garaian: 2000. urtean, Ibarretxe lehendakariari elkarrizketa egitea debekatu zioten Vatikanoko kuriatik; aurretik, 1987an, Txomin Iturbe ETako buruzagia hil zenean, Mikel Lejarza Radio Euskadiko zuzendariari egindako elkarrizketak hautsak harrotu zituen, eta Espainiako enbaxadorearen kexa bat ere eragin zuen; 1993an, Tarancón kardinalari egindako elkarrizketa ez zioten emititzen utzi.

Erromako aldia itxita, berriro Euskal Herrira itzultzean, giro politikoarekin gogaituta ageri da Arregi. «Badirudi euskaldunek, enpresa munduan, ekonomian, lanean asmatzen dutela. Baina politika munduan nola jokatu ez dakitela ematen du». Gogaituta, baita ere, politikoen kontuei hedabideetan ematen zaien tokiarekin; baina politikaren atzaparrei ihes egin ezinik idazlea bera ere, zortzi orrialde eskaintzen baitzizio gaiari.

Memoria-liburua hasierako galderarekin amaitzen da: *Eta orain zer?* Euskal Herriaren, Munduaren eta Elizaren etorkizunari egiten zaio galdera.

*Elixabete Garmendia Lasa*